# kultur agenda

# BERRIOBEITI

**Berriobeitiko Udala** Aitzoain Añezkar Artika Ballariain Berriobeiti Berriogoiti Elkarte Larrageta Lotza Oteitza















## MARTXOA APIRILA 2026



**Azaleko argazkiak:** Natxo Valenciaren olio-pinturak; "El peor espectáculo del mundo…"; mahai-jokoak Liburutegian; "Amares…"; Erronka: "2 orduko zumba; "Nuur"; eta irakurle taldea: "Una mujer que espera".

**Argitaratzailea**:
Berriobeitiko Udala
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da

Casa de Cultura MARIADEMAEZTU Kultur Etxea

MISTOA
Papera | Basogintza arduratsua babesten
Papel | Apoyando la silvicultura responsable
FSC® C021816
FSC www.fsc.org

# BERRIOBEITIKO KULTUR AGENDA

## MARTXOA-APIRILA / 2026

Argitaratzailea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena

## OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi baino ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara.

## KULTUR EKIPAMENDUA

### KULTURA ZERBITZUA
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** cultura@berrioplano.es

### MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA
Iturribidea, 1. Artika
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 78 31 57

### EUSKARA ZERBITZUA
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29 / 634 51 53 84
**Posta elektronikoa:** euskara@berriobeiti.eus

### KIROLA ETA GAZTERIA ZERBITZUA
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** deporteyjuventud@berrioplano.es

### LIBURUTEGI PUBLIKOA
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Neguko ordutegia:** 14:00etatik 20:00etara **Tel:** 948 38 26 22
**Posta elektronikoa:** bibliarc@navarra.es

### ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA
**BERRIOBEITI**
Andre Mariaren Garbikundea, 11.
**Ordutegia:** 10:00etatik 22:00etara
**Tel:** 948 13 18 29 (kafetegi-taberna)

### ARTIGUNE I ARTIKA
Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

### ARTIGUNE III ARTIKA
Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

### ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO PATRONATUA
María de Maeztu Kultur Etxea
**Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:** orreagamusika@gmail.com

### KONTZEJU ETXEAK
**AITZOAIN**
Oronsuspe auzoa, 3

**AÑEZKAR** San Andres, 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA**
Kontzeju Etxea San Marcial, 9
**Tel:** 948 38 37 93
"María Domínguez" Gizarte-Etxea María Domínguez, 3
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN** San Pedro, z/g

**BERRIOGOITI**
Santa Eulalia, 39
**Posta elektronikoa:** concejodeberriosuso@gmail.com

**BERRIOBEITI** Kale Nagusia, 2

**ELKARTE** Purificacion, 16

**LARRAGETA**
San Esteban, z/g
**Posta elektronikoa:** concejo.larragueta@gmail.com

**LOTZA** San Juan, z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA:** San Joan, 6
**Tel:** 651 65 83 14

# MARTXOA - APIRILA 2026

## ASTE SANTUKO HIRI KANPALDIAK HAURRENTZAT

**948 012 012**
**Infolocal**

**Kanpaldien datak:** Apirilak, 7, 8 , 9 eta 10

**Adina:** 2014tik 2021era bitarte jaiotakoak (biak barne)

**Precio:** 26 € parte-hartzaile bakoitzeko

**Pago:** Martxoak, 17 eta 18 (ordainketa txartel bidez)

**Argibideak udal webean**

### PREINSCRIPCIONES, 11, 12 y 13 de marzo




Berriobeitiko Udalak eskainitako hiri kanpaldiak Haur Hezkuntzako 2. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarte eskolatuak dauden haurrendako dira, hau da, izena ematean ikasmaila horietako batean eskolatuak egon behar dute; beraz, 2014tik 2021era bitarte jaio diren haurrentzat dira (biak barne).
Kanpaldiak gune ludikoak dira, familia eta lana bateragarri egiteko dauden beharrei erantzuteko; era berean, Zendeako haurrendako josteta eta garapen guneak sortu nahi dituzte hainbat gai lantzeko, aldi berean balioak eta sormena sustaturik.

## ORREAGA MUSIKA ESKOLA

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**

**616 725 218**
**orreagamusika@gmail.com**

### KULTUR ETXEKO ENTZUNALDIAK

**Martxoak 4, asteazkena**
**SAXOFOIA**
**Ordua:** 18:00 **Non:** Auditorioa

**Martxoak 6, ostirala**
**TXIRULA**
**Ordua:** 17:30
**Non:** Erakusketa gela

**Martxoak 11, asteazkena**
**PIANOA**
**Orduak:** 17:00 eta 18:30
**Non:** Auditorioa

**Martxoak 12, osteguna**
**KLARINETEA**
**Ordua:** 18:00
**Non:** Erakusketa gela

**Martxoak 13, ostirala**
**BIOLINA**
**Ordua:** 18:30
**Non:** Sala de exposiciones

**Martxoak 18, asteazkena**
**GITARRA**
**Ordua:** 17:30 **Non:** Auditorioa

**Martxoak 20, ostirala**
**METALAK**
**Ordua:** 19:00 **Non:** Auditorioa

**Martxoak 23, astelehena**
**TXISTUA**
**Ordua:** 19:00
**Non:** Erakusketa gela

**Martxoak 24, asteartea**
**PIANOA**
**Ordua:** 17:00 **Non:** Auditorioa

**Martxoak 25, asteazkena**
**BATERIA**
**Ordua:** 18:00 **Non:** Auditorioa

**Martxoak 27, ostirala**
**AGOIZKO ETA ORREAGAKO BANDEN TRUKE KONTZERTUA**
**Ordua:** 20:00 **Non:** Auditorioa

**Apirilak 28, asteartea**
**PERKUSIOA**
**Ordua:** 17:00 **Non:** Auditorioa

# PROGRAMAZIOA **MARTXOA 2026**

## MARTXOAK 01 / IGANDEA

### Antzerkia

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**

**Ordua:** 18:00

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Sarrera:** 6 € aurrez / 7 € leihatila

**Adina:** familientzat

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua

**"Amares... amar los mares"**

PRODUCCIONES MAESTRAS



Neguko ekaitz-gau batean, Pepa The bottle pirata zaharrarekin topo egin genuen, eta bost kontinenteetan barrena egindako ibilaldi luzeak gogoratu genituen. "El Ulises" itsasontzian bizitako iragan bateko abenturak eta zorigaitzak biziaraziko dizkigu. Peparekin gogoratuko dugu nola iritsi zen Japoniara, nola defendatu zituen animaliak Lagosen, nola bidaiatu zuen Yemayák kulunkatutako olatuen gainean, nola dantzatu zen Ozeanian edo nola, zaharturik eta atsoturik, itzuli zen bera jaiotzen ikusi zuten Eskoziako itsas labarretara.

## MARTXOAK 03 / ASTEARTEA

### Mahai jokoak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** jende guztiarendako

**Ordua:** 17:00 – 20:00




Kartak, partxisa, xakea, catán, birus, trivial, dixit... Zatoz probatzera, doakoa da!

## MARTXOAK 04 / OSTIRALA

### Irakurle taldea

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Adina:** helduak

**Ordua:** 18:00 – 19:00

**Prezioa:** doan, aurrez izena emanda (948 38 26 22)

**Antolatzaileak:** Saharako Kabiak, Nafarroako Gobernuko Liburutegi zerbitzuarekin batera




Baida Rahalen liburu honi buruzko literatur solasaldia da. Tindufeko errefuxiatuen kanpaldietako bizitzaren inguruko kontakizunak dira. Saioaz gain, otsailean erakusketa bat eta hitzaldi bat antolatu dira saharar herriaren egoera ezagutzera emateko.

## MARTXOAK 06 / OSTIRALA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikina**

**Ordua:** 10:00



### Bizitza aktiboa

“Ibilaldi osasuntsuak” programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da izena eman beharrik.

## MARTXOAK 07 / LARUNBATA

### Erronka: “2 orduko zumba”

**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikina**

**Adina:** helduak

**Ordua:** 10:30-12:30

**Izen-ematea:** 948 012 012n, martxoaren 3an eta 4an, erroldatuek, eta martxoaren 4an, ez erroldatuek. Leku mugatuak

**Antolatzailea:** Kirol Zerbitzua



2 orduko zumba masterclassa, hau da, dantza etengabea Berriobeitiko zumba monitoreen eskutik; hornigaiak izanen dira, bai eta dutxa hartzeko aukera ere. Erroldatuek izanen dute lehentasuna.

## MARTXOAK 10 - 31

### Erakusketa

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**

**Non:** Erakusketa gela

**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta asteburuak, Kultur Etxean jarduerarik bada

**Darrera:** doan

### Natxo Valenciaren olio-pinturak



Paisaiak dira eta haietan hodeiak, elurrak, errekak, hondartzak, olatuak, txokoak eta Nafarroako festak ageri dira, bai eta munduko lekuak eta pertsonak ere, guztiak ere guztiz deigarri egin zaizkidanak. Natxo Valenciak pintzelaren eta paletaren teknika mistoa erabiltzen du olio-pinturak sortzeko, eta errealismoaren eta inpresionismoaren artean dabil.

# PROGRAMAZIOA **MARTXOA 2026**

## MARTXOAK 11 / ASTEAZKENA

### Mahai jokoak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** jende guztiarendako

**Ordua:** 17:00–20:00




Kartak, partxisa, xakea, catán, birus, trivial, dixit... Zatoz probatzera, doakoa da!

## MARTXOAK 20 / OSTIRALA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Elkarteko elizatik**

**Ordua:** 10:00



**Bizitza aktiboa**

"Ibilaldi osasuntsuak" programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da izena eman beharrik.

## MARTXOAK 21 / LARUNBATA

### Antzerkia

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**

**Ordua:** 19:00

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Sarrera:** 8 € aurrez / 9 € leihatila

**Adina:** helduak

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua

**"El peor espectáculo del mundo... de momento"**

ZANGUANGO TEATRO






Biopic eroa da, auzoko heroi batek protagonizatua; zerbait izaten saiatzen direnen erretratua egiten du, baina, azkenean, haien bizitza untxiena bezalakoa da, hau da, sasiz sasi jauzika aztarnarik utzi gabe baitabiltza eta, atzera begiratzean, eskopetekiko beldurra baizik ez dute ikusten. Aurrekontu txikiarekin eta material gutxirekin beren burua eraikitzen duten pertsona guztiekiko maitasun-adierazpena da.

## Korrika egitarau berezia

### MARTXOAK 20 / OSTIRALA

**Artikaberri**

**Petoak eta lekukoak egiteko tailerra**

**Ordua:** 17:30 – 18:30

**Non:** María Dominguez Gizarte Etxea

**Korrika Txikia, Eroskiko biribilgunetik**

**Ordua:** 19:00

Bukaeran, askaria Txolinenea elkartean

**Antolatzaileak:** Berriobeitiko Euskaltzaleen Sarea (BES) eta Berriobeitiko Korrika Batzordea

### MARTXOAK 21 / LARUNBATA

**Berriobeiti-Berriogoiti**

**Korrika txikia Berriobeititik Berriogoitiraino**

**Ordua:** 12:00

**Non:** Berriobeitiko pilotalekutik abiatuta

### MARTXOAK 22 / IGANDEA

## Korrika gure Zendean







**Berriobeiti Zendea**

**1:** Artikaberritik sartuko da gure Zendean, goizeko 06:12 aldean (668. kilometroa)

**2:** Berriozartik sartuko da Aitzoainen, 06:27 aldean (671. kilometroa)

**3:** azken kilometroa (674), Berriogoititik Ollakarizketa aldera, 6:41 aldean

## MARTXOAK 23 - 27

### Tailerra

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Adina:** helduak

**Ordua:** 16:00–18:00

**Prezioa:** doan, aurrez izena emanda (948 012 012)




#### “Antolatu zaitez hodeian”

IKTak erabili eta maneiatzeko tailerra, Nafarroako Gobernuak emana (Nasertic).

## MARTXOAK 28 / LARUNBATA

### Haur tailerra euskaraz: “Aisialdian ERE euskaraz”

**Berriogoitiko Kontzeju Etxea**

**Ordutegia:** 16:30–18:30

**Adina:** Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendua

**Doako jarduera**, aurrez martxoaren 20tik 27ra izena emanda (948 012 012)

**Antolatzailea:** Euskara Zerbitzua (634 52 53 84)

**Laguntzaileak:** Berriogoitiko Kontzejua eta Nafarroako Gobernua

#### “Bingo-eroa KORRIKAN!”




Primeran pasatzeko bingoa, guztiz ezohikoa. Parte-hartzaileek kartoi bat bete beharko dute, bai, baina laukiak zirrimarratzeko, Korrikarekin zerikusia duten probak gainditu beharko dituzte. Aisialdia euskaraz Zendeako herri txikienetako haurrentzat, hilean larunbat batez.

## APIRILAK 01 / ASTEAZKENA

### Mahai jokoak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** jende guztiarendako

**Ordua:** 17:00–20:00




Kartak, partxisa, xakea, catán, birus, trivial, dixit... Zatoz probatzera, doakoa da!

## 10 APIRILAK / OSTIRALA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikina**

**Ordua:** 10:00



#### Bizitza aktiboa

“Ibilaldi osasuntsuak” programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da izena eman beharrik.

## APIRILAK 17 / OSTIRALA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Añezkarko Elkartea**

**Ordua:** 10:00



**Bizitza aktiboa**

“Ibilaldi osasuntsuak” programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da izena eman beharrik.

## APIRILAK 17 / OSTIRALA

### Arratsaldeko solasaldiak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** helduendako

**Ordua:** 18:00 – 19:00




Hitz egitea duzu gustuko? Zorionekoa zu! Hilean ostiral batez elkartzen baikara zabaltasunez, era solidarioan, umore senez eta pentsamendu kritikoa sustatuz solas egiteko. Etorriko zara?

## APIRILAK 19 / IGANDEA

### Antzerkia

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**

**Ordua:** 18:00

**Hizkuntza:** euskaraz

**Sarrera:** 6 € aurrez / 7 € leihatila

**Adina:** familientzat

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua

**“Nuur”**

LA BANDA TEATRO CIRCO



“Nuur” jaiotzen den eta jokoaren xalotasuna gurutzatzen duen arima baten bidaia da, emozioen zorabioa aurkituta. Denboraren erritmo nekagaitzak gidaturik, existentziaren edertasun iragankorra aurkitzen du. Ikuskizun honetan, mugimenduak, musikak eta argiak istoriorik unibertsalena kontatzen dute: gurea.

# PROGRAMAZIOA **APIRILA 2026**

## APIRILAK 21 - 28

### Erakusketa

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**

**Non:** Erakusketa gela

**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta asteburuak, Kultur Etxean jarduerarik bada

**Darrera:** doan



#### Garapen Lankidetzarako Toki Funtsa

“Ekintza txikiak, aldaketa handiak. Herri txikienak ere mundua alda dezake” izenburupeko erakusketa hau Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak apailatu du euskaraz eta gaztelaniaz, Nafarroako Udalek Garapen Lankidetzarako Toki Funtsari egiten dioten ekarpena azaltzeko.

## APIRILAK 22 / ASTEAZKENA

### Mahai jokoak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** jende guztiarendako

**Ordua:** 17:00 – 20:00




Kartak, partxisa, xakea, catán, birus, trivial, dixit... Zatoz probatzera, doakoa da!

## APIRILAK 23 / OSTEGUNA

### Ipuin-kontalaria

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Adina:** 4 urtetik aurrera

**Ordua:** 17:30

**Prezioa:** doakoa, aurrez izena emanda



#### Liburuaren Eguneko ipuin-kontalaria

SERGIO DE ANDRÉS

Ipuin-kontalari bat arituko da apirilaren 23a, Liburuaren Eguna, ospatzeko

## APIRILAK 25 / LARUNBATA

### Taller infantil en euskera “Aisialdian ERE euskaraz”

**Berriogoitiko Kontzeju Etxea**

**Ordutegia:** 16:30–18:30

**Adina:** Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendua

**Doako jarduera**, aurrez apirilaren 17tik 24ra izena emanda (948 012 012)

**Antolatzailea:** Euskara Zerbitzua (634 52 53 84)

**Laguntzaileak:** Berriogoitiko Kontzejua eta Nafarroako Gobernua

#### “Estanpazioa eta tatuajeak”

DINDAIA




Oinarrizko estanpazio teknikak ikasiko dituzu, baita koadro edo motxila bat egiteko erabili ere. Era berean, tatuaje diseinu pertsonalizatuak egiten ikasiko duzu eta zuk erabiltzeko gorde. Aisia euskaraz Zendeako herri txikienetako haurrentzat, hilean larunbat batez.